


Euskal AEko industria-jarduera % 7,0 hazi zen 2022ko urtarrilean

Aurreko hilaren aldean (2021eko abendua), Industria produkzioaren indizea % 1,5 igo zen

Eustaten datuen arabera, eta lan-egutegiko termino homogeneoetan, Euskal AEko industria-produkzioa 2022ko urtarrilean % 7,0 handiagoa izan da 2021eko hil berean baino.

Urtaroen eragina zuzenduta, 2022ko urtarrila eta 2021eko abendua alderaturik, Euskal Autonomia Erkidegoko industria-produkzioa %1,5 hazi da.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizearen urte- arteko aldakuntza-tasa (%)



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2022ko urtarrileko indizearen bilakaera, 2021eko urtarrilaren aldean, positiboa izan da industria-sektore handi guztietan. *Energia* % 14,5 igo da. Sektore horretan sartzen dira energia elektrikoaren ekoizpena eta hornidura eta petrolioaren finta. *Ekipo-ondasunak* (motordun ibilgailuen fabrikazioa, tren-makinen eta trenbideko materialen eraikuntza eta aireontziak edo itsasontziak egitea), berriz, % 9,7 igo dira aurreko urteko urtarrilaren aldean.

Kontsumo-ondasunek % 8,8ko gehikuntza izan dute osotasunean; *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek* % 10,9ko igoera izan dute, eta *Kontsumo-ondasun iraunkorrek* % 0,9koa. *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek* epigrafean honako jarduerak hauek ageri dira: elikagaiak prozesatu eta kontserbatzeko jarduerak, garbiketa eta higienarako

produktuen fabrikazioa, eta jantziak egitea. Altzarien eta etxeko tresnen fabrikazioa, besteak beste, *Kontsumo-ondasun iraunkorren* sektoreko jarduerak dira.

Bitarteko ondasunek, zeinetan metalurgia eta produktu metalikoen fabrikazioa, industria kimikoa eta kautxuzko eta plastikozko produktuen fabrikazioa baitaude, % 2,7ko igoera izan dute.

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea lurralde historikoaren eta ondasunen helburu ekonomikoaren arabera. Aldakuntza-tasak (p). Urtarrila 2022

	Egutegi eraginak zuzendutako datuak		Datu desestazionalizatuak
	m / m-12	Am / A(m-12)	m / m-1
INDIZE OROKORRA			
Euskal AE	7,0	7,0	1,5
Araba/Álava	8,9	8,9	1,9
Bizkaia	8,4	8,4	3,9
Gipuzkoa	4,4	4,4	-0,9
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK			
Kontsumo-ondasunak	8,8	8,8	1,4
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	0,9	0,9	-5,3
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	10,9	10,9	3,1
Ekipo-ondasunak	9,7	9,7	-2,3
Bitarteko ondasunak	2,7	2,7	2,1
Energia	14,5	14,5	5,7

(p)Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Am / A(m-12) Urte arteko aldakuntza-tasa, urtarrietik behatutako azken hilera arte metatutako aldiaren (Am), aurreko urtean pilatutako aldi beraren (A(m-12)) aldean

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

Data 2022ko Martxoaren 7a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Maila bereiziago batean, Euskal AEko industrian pisu handiena duten sektoreen artean, 2022ko urtarrilean urte arteko hazkunderik handiena izan dutenak izan dira *Makineria eta ekipoa* (% 13,5 gora), *Energia elektrikoa, gasa eta lurrina* (% 11,9) eta *Metalurgia eta produktu metalikoak* (% 8,5). Beste muturrean, *Kautxua eta plastikoak* izeneko sektorean bakarrik jaitsi da ekoizpena (% 4,5 behera).

Euskal AEko Industria produkzioaren indizea. Sektore A38 nagusiak (1). Urte arteko hazkunde-tasa (p). Urtarrila 2022

	m / m-12
Elikadura ind., edariak, tabakoa	6,8
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	3,7
Kautxua eta plastikoak	-4,5
Metallurgia eta produktu metalikoak	8,5
Materiala eta tresna elektrikoak	4,5
Makineria eta tresneria	13,5
Garraio-materiala	6,8
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	11,9

(p) Behinbehineko datuak

Egutegi eraginak zuzendutako datuak

(1) Euskal AEko industrian pisurik handiena duten sektoreak

Data 2022ko Martxoaren 7a

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Urtarrileko Industria produkzioaren indizearen urte arteko bilakaera positiboa izan da hiru lurraldeetan: Araban % 8,9 hazi da, Bizkaian % 8,4 eta Gipuzkoan % 4,4.

INFORMAZIO OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie informazioa biltzen lagundu duten establezimendu guztiei. Haiei esker, urtarrileko indizea lagingaren **% 92,58ko** estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62